

## **EAEko IRAKASLEAK**

### **GIZARTE-FUNTSA. 2023ko EKITALDIA**

Zirkularra Hezkuntzaren web orrian argitaratu dute. [Lotura](#).

Eskaerak egiteko epea **maiatzaren 7tik 27ra**, biak barne, Hezigunean.

### **IKASTURTE HASIERAKO ESLEIPENAK (IKHA / COCU)**

Karrerako funtzionario izanik, 2024-2025eko IKHA esleipen prozesuan parte hartu nahi izanez gero, beste kidego batean lanpostua lortzeko (karrerako funtzionario gisa edo ordezkoen zerrendetako kide gisa kidego horretan) jakinarazpena aurkeztu behar da.

Eskaera ekainaren 7a baino lehen aurkeztu behar da Hezkuntzako Tramitaguneraren bidez, honakoa adieraziz: *2024-2025 Ikasturte Hasierako esleipenen prozesuan parte hartu nahi dut.*

Administrazioak ikastetxeetako zuzendaritzei bidalitako oharrean, horren inguruko azalpenak jasotzen dira.

### **HAINBAT ZERBITZU-EGINKIZUN**

Baztertuen zerrendak eta ahozko defentsa egiteko [deialdiak](#). Erreklamazioak **maiatzaren 13ra arte**, hori barne.

## **EAEko LAN-LEGEPEKO HEZITZAILEAK**

### **ORDEZKAPEN KONTRATUEI ETA LANALDI PARTZIALEKO BAKANTEEI UKO EGITEA**

Uko egiteen behin-behineko ebazpena eta zerrenda Hezkuntzako webgunean.

**Erreklamazioak** maiatzaren 8tik 9ra, biak barne.

-Idazki sinatua + NANaren kopia, hezk.sind@euskadi.eus helbidera.

### **LEKUALDATZE-LEHIAKETA 2024**

Behin betiko ebazpena argitaratu da Hezkuntzako web orrian.

Informazio gehiago Hezigunean.

### **IKASTETXEEN ESLEIPENA** (Berritzegunera atxikitako langileak)

Partaideen eta lanpostuen behin betiko zerrendak: **maiatzak 9**.

Berritzeguneetako adostasun bilerak: **maiatzak 14, 15 eta 16** (Adi zuzendaritza edo Berritzegunetik jasotako jakinarazpenei).

**LAN AKORDIO DUINAK ORAIN!!!**

[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)